



Esp.zk.. SUBV_CON_COMPET/2024/7

DEIALDIA, NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO 6

URTETIK AURRERAKO KIROL AMATEUR OFIZIALERAKO, 2023-2024KO

DENBORALDIAN

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

2024. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da dirulaguntzak ematea Iruñeko kirol-elkarteen sareek ohiko entrenamenduak antolatu ditzaten laguntzeko eta kirol-lehiaketa ofizial jakin batzuetan parte hartzeko. Plan horren 4. ildo-estrategikoan (Kirola) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat kirol norgehiagokako araubidean ematea 6 urtetik aurrerako kirol amateur ofizialean 2023-2024ko denboraldian. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna gisa ikusten da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:
Dirulaguntzak ematea Iruñeko kirol-elkarteen sareek ohiko entrenamenduak antolatu ditzaten eta kirol-lehiaketa ofizial jakin batzuetan parte har dezaten, 2023-2024ko denboraldian. Lehiaketetan parte hartzea eta entrenamenduak "kirol amateur ofizialtzat" joko dira, deialdi honetan jarduera horietarako ematen den definizioarekin, baldintzekin eta eskakizunekin bat.

2. Deialdiaren helburua:

Federazio-lehiaketa jakin batzuen esparruan Iruñeko kirol-entitateek ematen dituzten prestakuntza eta sustapeneko jardueri laguntza ematea, kirol ofizialak –eskumena duten erakunde publikoek hala aitortuak– praktikatzea bultzatzen badute. Oro har, kirol jarduera federatuak aukera emanen du honako hauek lortzeko: a) elite-kirolerako progresioa kirol-errendimendu nabarmenagoa duten kirolarientzat, b) denbora jakin eta murriztu batez mantentzea kirol-lehiaketan interesak edo motibazioak dituzten pertsonak, eta c) pertsona batek astean zehar kirol kantitate handiagoa egitea hala neurritzkoa nola bizia, aisiako kirol-praktikarekin egiten denarekin alderatuta.



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

3.1. "Kirol amateur ofizial" gisa aintzat hartua izateko baldintzak eta betekizunak

Deialdi honen ondorioetarako "kirol amateur ofizialtzat" joko da honako ezaugarri hauetako bat duen entitateen eta entitate horietako kirolarien multzoa:

o Kirolari federatuak, 6 urtetik aurrerakoak (2017an edo lehenago jaioak) eta nagusiki kirol klub ofizial batekin lehiatzen direnak kirol-lehiaketetan, hori halabeharrezkoa ez bada ere.

o Kirolari federatuak, 2011. urtean jaiotakoetatik senior kategorია bitartekoetara, biak barne, hiru egun baino gutxiagoko Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetan parte hartzen dutenak, baldin eta parte-hartze hori ez bada Udalaren beste dirulaguntza-deialdi batzuek lagundu.

o Kirol-lehiaketa ofizialetan igoera/jaitsiera-fasean, sektore-fasean edo senior kategoriako kirol batean kategoriako promozio-fasean (kategoria horri kirol bakoitzaren araudi ofizialean emandako kategoriarekin bat) parte hartzen duten taldeak.

o Kirolari federatuak, 2005. urtean jaiotakoetatik senior kategoriako azken urtekoetara, biak barne, kirol bakoitzaren berezko erregelamenduarekin bat, honakoetan parte hartzen badute:

o Estatu mailako kirol liga erregularrak, senior kategorian, Kirol Kontseilu Gorenak profesional moduan aitortu ez eta dagozkien Kirol Federazioek antolaturik, kirol bateko 2. maila seniorretik beheko mailetara, betiere honakoa betetzen bada: a) taldea 4 kirolariz gutxienez osatua egotea eta taldeak dirulaguntzarik jaso ez izana liga horietarako berariazko udal-deialdian; b) ligek federazio-izen jakin bat edukitzea, aldez aurretik ezarritako egutegi ofizial bat jarraitzea, gutxienez hiru jardunaldikoa (banakako kiroletan) eta zazpikoa (taldeko kiroletan), egun ezberdinetan, non aukerarik ez dagoen taldeek aukeran parte hartzeko egutegi zabalago baten proba batzuetan edo besteetan, eta c) ligak beste liga batera igo edo jaistea ahalbidetzea taldearen kirol-errendimenduaren arabera.

o Beste kirol-lehiaketa ofizial batzuk, estatukoak, erkidegoen artekoak (baina ez estatukoak), Nafarroakoak edo tokikoak, ez badira ezein ligaren parte.

Ez dira dirulaguntza honen xede izanen, deialdi honetako "kirol amateur ofizialeko" eskaintzen baitan, honako hauek: a) deialdi honetan diruz lagundutako taldeek parte hartzen duten lehiaketa ofizialak antolatzea Iruñean; b) Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetan parte hartzea, 2012an eta ondoren jaiotako kirolariek, edo hiru egun baino gehiagor, edo beterranoen edo antzeko kategorietako kirolariek; c) kirol jarduera federatuetan parte hartzea 6 urtetik beherako kirolariek –kanpo geratzen dira 2018an eta ondoren jaiotakoak–; d) parte hartzea federazio-egutegi ofizial batean sartuta ez dauden lehiaketetan; e) kirol jakin batean eskumena duten erakunde publikoek berariaz ofizial gisa aitortuta ez duten kiroletako baten entrenamendu edo lehiaketetan parte hartzea; f) 2023-2024ko denboraldian federazio-lizentzia bat indarrean ez duten kirolariak; g) nazioarteko lehiaketetan parte hartzea, eta h) UCI World Teams / Pro-Teams / Continental Teams mailetako ziklista-talde profesionalak, edo beste kirol profesional batzuetako talde profesionalak eta nagusiki nazioarteko txapelketetan parte hartzen dutenak.

3.2. Beste betekizun batzuk eta dirulaguntzaren xede diren jarduerak egiteko epea

o Ez zaie dirulaguntzarik emanen kirolariei ezta haien inguruan antolatutako jardueri ere, ez badira aurreko apartatuan adierazitako adin-tarteetakoak.





NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

o Diruz laguntzen ahal den jarduera 2023-2024ko kirol-denboraldian garatu beharko da, 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra.

Salbuespenez, aurreko aldian sartu ez ziren txapelketak sar daitezke, betiere denboraldi horretakoak badira eta haien gastuak deialdi honen P.2 apartatuan zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindu badira.

o Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Nafarroako Kirol Federazioak, Nafarroan kirol federatuko jarduerak antolatzea ez baita dirulaguntzaren xedea; xedea, ostera, horien jarduera federatuetan parte hartzen duten Iruñeko entitateen jarduerak bakarrik laguntzea da.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 150.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/34100/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate bakoitzari emanen zaion diru-kopuruak ezin izanen du gainditu sortutako defizitaren % 100, eta, edonola ere, banakako muga hau egonen da:

- 16.000,00 € bitarte, entitate bakoitzeko.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

Bi hainbanaketa mota egonen dira. Lehenik, "murriztapen-hainbanaketa", behin eskaera guztiak ebaluatuta H.1.1 eta H.1.5 apartatuetako irizpideak jarraituz, zenbatekoak C.1 apartatuan esleitutako gehieneko aurrekontua gaindituz gero. Bigarrenik, "handitze-hainbanaketa" bat edo zenbait, behin lehenengo hainbanaketa eginda C.3 apartatuan jasotako banakako gehieneko zenbatekoa gainditzen duten eskaerak egonez gero, edo jaso beharreko dirulaguntza jardueraren defizita baino handiagoa bada. Lehenengo hainbanaketa proportzioan aplikatuko zaie onartutako eskaera guztiei. Bigarrena, eskaera batzuetan potentzialki kentzen ahal diren kopuruak proportzioan banatuko dira kasuan kasuko gainerako eskaeren artean, betiere gainditu gabe hala banakako gehieneko kopurua nola jardueraren defizita; beraz, behar beste hainbanaketa egiten ahalko dira.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren mende egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	150.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aipatzen diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Legearekin bat eratuta egotea eta dagokien erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada.
2. Iruñean edukitzea taldearen egoitza soziala nahiz zerga-egoitza.
3. Irabazi asmorik gabekoa izatea.
4. Entitate eskatzaileek estatutuetan jasota izan beharko dute, helburuen artean, deialdiaren xedeari loturiko jarduerak egiteko helburua.
5. Administrazio-bideko zehapen irmorik jaso ez izana 2023-2024ko denboraldian jarraian aipatzen diren legeetan "oso astun" gisa tipifikatutako arau-hausteengatik:

o 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, Kirolean egon ahal den indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.

o 15/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa.

o 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun publikoak eta aisia-jarduerak arautzen dituen.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen den dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak eta informazioa aurkeztuta.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

1. Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradun diren entitate eskatzaileek gardentasun-betebeharrari buruzko Adierazpena aurkeztu beharko dute, honekin batera doan VII. ERANSKINAREN ereduarekin edo webguneko izapidetako adierazpen ereduarekin bat, eta, hala badagokio, erakundearen azken urteko kontuen kopia aurkeztu beharko dute. Adierazpen hori dirulaguntzak justifikatzeko agiriarekin batera aurkeztuko da, eta oinarri hauetako P.2 apartatuan horretarako ezarritako epearen barruan. Halaber, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, erakunde onuradunek Iruñeko Udalari eman beharko diote, honek aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.





NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

2. Agiri, publizitate, irudi zein material orotan hizkuntza ez sexista erabili beharko da, eta ekidin emakumeen irudi baztertzaila eta estereotipo sexista oro; halaber, honako balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rol eta -nortasun askotarikoak.

3. Dirulaguntzaren xede diren kirol-eskaintzek ez dute izen ofizialean eramanen "udal" izenlaguna, ez baitira Udalarenak. Hala ere, jarduera bakoitzari emandako izenaren testu-lerro berean, jardueraren eragin sozialen inguruan entitate bakoitzak hartutako konpromiso boluntarioei buruzko sinbolo txiki edo etiketa informatibo batzuk sartu beharko dira (H.1.5 apartatua). Sinbolo edo etiketa horiek herritarrei informazioa ematekoak izanen dira, eta jardueren izenen ondotik jarri edo kendu beharko dira entitatea <https://www.pamplona.es/eu/gaiak/kirola> webgunean argitaratutako zerrenda eguneratuetan sartzen den ala ez aintzat hartuta. Orri horretan deskargatzen ahalko dira, baita ere, aipatu sinbolo horiek. Iruñeko Udalak publikoki hedatzen ahalko ditu, egoki jotzen dituen bideetatik, etiketaren bat jaso duten berdintasunari buruzko proiektuak, betiere arlo horretan jardunbide egokien ereduak ikusarazte aldera.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko diote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da"
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☐ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2024ko irailaren 20ra bitarte iraunen du. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administrazioak egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagiriak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Kasu horretan, agiri horiek noiz, zergatik eta zein prozeduratan aurkeztu ziren adierazi beharko du.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.





NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak zein juridikoak (publikoak nola nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarrearen ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Deialdi honetako P apartatuan adierazitako edukia izanen du memoriak.

g) Deialdiko P apartatuan ezarritako gainerako agiriak.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutako, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiria eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

H.1.0 KALKULUA EGITEKO FORMULA

Jaso daitekeen gehieneko dirulaguntza: $[(A + B + C) + (P * Pb)]$

A: H.1.1. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa

B: H.1.2. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa

C: H.1.3. irizpidea aplikatzean lortutako zenbatekoa

P: H.1.4 eta H.1.5 irizpideak aplikatuta entitateak eskuratutako puntuak guztira.

Pb: Puntuaren balioa. Balio hori eskuratzeko honako formula hau aplikatu beharko da (i = aurkeztutako entitateen multzoa):



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



$$Pb = [(C \text{ apartatuko kreditu eskuragarria}) \text{ €} - \Sigma(A+B+C)] / P_i$$

H.1.1. KIROL-INSTALAZIOEN ERABILERA

Diruz lagunduko da, % 8ra bitarte, deialdi honetan diruz lagundutako kirolari eta taldeei aplikagarri zaizkien kirol-instalazioen erabileraren kostua, 2023-2024ko denboraldian. Kostu horrek barne hartzen ahal ditu hala norberarenak ez diren kirol-instalazioen erabilera nola, norberaren kirol-instalazioen kasuan, zeharkako zenbait gasturen ehuneko bereizi eta justifikatua, deialdi honetako L letran ezarritako jarraibideekin bat. Irizpide horri egotzen ahal zaion muga-kopuru bat ezarriko da entitate bakoitzeko, 3.000 €-koa.

H.1.2 ESPAINIAKO TXAPELKETA, KOPA ETA SUPERKOPETAN PARTE HARTZEA, 2011. URTEAN EDO LEHENAGO JAIOTAKOETATIK AURRERA

Diruz lagunduko dira, % 8ra bitarte, Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetan parte hartzeko kostua, hiru egun baino gutxiagoko iraupena edukita, 2011. urtean jaiotako kirolarietatik senior kategoriara bitartekoek, hori barne (oro har, haurren kategoria), parte hartzen badute, baldin eta Iruñetik kanpo egiten badira eta entitateei ezohiko gastua eragiten badiete. Parte-hartze horren kostu globala kalkulatu da benetan ordaindutako honako hauen kontzeptuekin bakarrik: a) txapelketan parte hartzeko federazio kanon edo kuota zehatz eta espezifikoa, eta b) kirolarien eta langile teknikoen (senitartekorik eta lagunik ez) joan-etorriak, ostatuta eta mantenuak. Beste lurralde-alorrei dagozkien txapelketa, kopa eta superkopak ez dira dirulaguntzaren xede izanen atal honetan.

H.1.3 IGOERA/JAITSIERA-FASEAN, SEKTORE-FASEAN ZEIN KATEGORIAKO PROMOZIO-FASEAN (SENIOR) PARTE HARTZEA

Diruz lagunduko dira, % 6ra bitarte, igoera/jaitsiera-fasean, sektore-fasean zein kategoriako promozio-fasean parte hartzeko kostua, kirol ofizial batean eta senior kategorian bakarrik, baldin eta Iruñetik kanpo egiten badira eta entitateei ezohiko gastua eragiten badiete. Parte-hartze horren kostu globala kalkulatu da benetan ordaindutako honako gastu hauen kontzeptuekin bakarrik: a) fase horietan parte hartzeko federazio kanon edo kuota zehatz eta espezifikoa –halakorik balitz–, eta b) kirolarien eta langile teknikoen joan-etorriak, ostatuta eta mantenuak. Igoera-fasea zer den eta zer ez den ebazteko ezaugarriak dira, deialdi honekin bat, honako hauek: 1.) hiru egun baino gutxiago iraunen du beti, 2.) goragoko kategoria federatibo eta ofizial batera igotzea edo beheagoko batera jaistea erabakitzeke ez diren txapelketa, kopa, superkopa edo torneoak ez dira dirulaguntzaren xede izanen atal honetan (adibidez, ezin da dirulaguntzaren xede izan lortutako tokiaren arabera Espainiako txapelketa batean parte hartzeko bidea ematen duen Nafarroako txapelketa), eta 3.) aurretik beste txapelketa-sorta bat dutenak –Liga formatuan oro har–, non lortutako tokiaren arabera hurrengo denboraldian goragoko, edo hala badagokio, beheagoko maila bateko beste txapelketa batean jokatzeko aukera ematen den.

Salbuespenez, 2023-2024ko denboraldi horretan berean elite-kiroleko udal dirulaguntzen deialdian diruz lagundutako taldeek aukera izanen dute igoera- edo jaitsiera-fasean, sektore-fasean zein kategoriako promozio-fasean (senior) parte hartzeko gastuak aurkezteko, baldin eta elite-kirolaren deialdi horretarako eskariak aurkezteko garaian oraindik egin gabeak baziren. Kasu horietan, dirulaguntzaren zenbatekoa kostuaren % 3ra bitartekoa izaten ahalko da aurretik aipatutako gastu-kontzeptuetan.

H.1.4 NAFARROAKO FEDERAZIO-LIZENTZIA DUTEN KIROLARI KOPURUA

Apartatu honetan diruz lagunduko da entitate jakin batek Nafarroako federazio-lizentzia duten kirolarien kopuruaren arabera, kontuan hartu gabe lehiaketa ofizialetan parte hartu duten eta kirola indibiduala edo





NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

taldekoa den. Ondoren adierazten diren kategoriak aplikatuzetik entitate batek jaso dezakeen gehieneko puntuazioa 190 puntu izanen da (H.1.5 apartatua aurreikusitako berdintasun-proiektu bat EZ duten entitateentzat) eta 200 puntukoa (H.1.5 apartatua aurreikusitako berdintasun-proiektu bat BADUTEN entitateentzat).

o 0. kategoria: 6 urtetik beherako kirolariak (2018an eta ondoren jaioak): 0 puntu.

o 1. kategoria: 6 eta 12 urte bitarteko 20 kirolariren multzo bakoitzeko (2017 eta 2012 artean jaioak, biak barne): a) gizonezkoen azpi-kategoria (1 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (2 puntu). "1. kategoria" honetan sartutako kirolari bakar bat ere ezin izanen da egon kirol-eskoletarako dirulaguntzen udal-deialdian diruz lagundutako ekipoetan sartuta.

o 2. kategoria: 13 eta 14 urte bitarteko 20 kirolariren multzo bakoitzeko (2010 eta 2011an jaioak, biak barne): a) gizonezkoen azpi-kategoria (2 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (4 puntu). "2. kategoria" honetan sartutako kirolari bakar bat ere ezin izanen da egon kirol-eskoletarako dirulaguntzen udal-deialdian diruz lagundutako ekipoetan sartuta.

o 3. kategoria: 15 eta 16 urte bitarteko 15 kirolariren multzo bakoitzeko (2008 eta 2009an jaioak, biak barne), baldin eta "5. kategoriako" txapelketetan parte hartu ez badute: a) gizonezkoen azpi-kategoria (3 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (6 puntu). "3. kategoria" honetan sartutako kirolari bakar bat ere ezin izanen da izan elite-kiroleko dirulaguntzen udal-deialdian diruz lagundutako ekipoetan sartuta.

o 4. kategoria: 17 eta 18 urte bitarteko 15 kirolariren multzo bakoitzeko (2006 eta 2007an jaioak, biak barne), baldin eta "5. kategoriako" txapelketetan parte hartu ez badute: a) gizonezkoen azpi-kategoria (4 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (8 puntu). "4. kategoria" honetan sartutako kirolari bakar bat ere ezin izanen da izan elite-kiroleko dirulaguntzen udal-deialdian diruz lagundutako ekipoetan sartuta.

o 5. kategoria: 19 urtetik (2005ean jaioak) senior kategoriako azken urte bitarteko –kirol bakoitzaren araudi propioaren arabera– (biak barne) eta kirol egokitueta beste adinetako kirolari "seniorreko" 20 kirolariren multzo bakoitzeko:

+ A motako kirolekarako (besteak beste, saskibaloia, eskubaloia, futbola, areto-futbola, beisbol eta softbala, hockeya, errugbia, boleibola, taldeko kirol egokituak, waterpolo eta taldekako igeriketa sinkronizatua).

- Estatuko kirol-liga ofizial erregularretan parte hartzen duten kirolariak, 2. mailatik aurrera: a) gizonezkoen azpi-kategoria (15 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (30 puntu).

- Erkidegoen arteko kirol-liga ofizial erregularretan (ez estatukoetan, kirol bateko maila gorenekoa izan badaitezke ere) parte hartzen duten kirolariak: a) gizonezkoen azpi-kategoria (10 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (20 puntu).

- Nafarroako eta toki-esparruko kirol-liga ofizial erregularretan parte hartzen duten kirolariak: a) gizonezkoen azpi-kategoria (5 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (10 puntu).

+ B motako kirolekarako (besteak beste atletismoa, tenisa, mahai-tenisa, pilota, padela, neguko kirolak, mendiko kirolak, squash, judo, karatea, triatlota, xakea, badmintona, txirrindularitza, banakako kirol egokituak, esgrima, gimnastika, halterofilia, herri kirolak, kick boxinga, igeriketa, hegats-igeriketa, banakako igeriketa sinkronizatua, irristaketa, golfa, piragismoa, taekwondoa, arku-tiroa, tiro olinpikoa, ehiza eta arrauna).

- Estatuko bost txapelketa ofizialetan gutxienez parte hartu duten kirolariak, kirol egokituen kasuan izan ezik, horietan gutxiago izan baitaitezke: a) gizonezkoen azpi-kategoria (15 puntu), eta b)





NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

emakumezkoen azpi-kategoria (30 puntu).

- Lurralde-esparru txikiagoko lehiaketa ofizialetan parte hartu duten kirolariak, edo estatuko bost txapelketa ofizialetan baino gutxiagotan parte hartu dutenak: a) gizonezkoen azpi-kategoria (7,5 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (15 puntu).

"5. kategoria" honetan sartutako kirolari bakar bat ere ezin izanen da izan elite-kiroleko dirulaguntzen udal-deialdian diruz lagundutako ekipoetan sartuta.

o 6. kategoria: Senior kategoriatik gorako –kirol bakoitzaren araudiarekin bat (edonola ere ez dira 30 urtetik beherakoak izanen)– 20 kirolariren multzo bakoitzeko, baldin eta "5. kategoriako" txapelketetan parte hartu ez badute: a) gizonezkoen azpi-kategoria (1 puntu), eta b) emakumezkoen azpi-kategoria (2 puntu). "6. kategoria" honetan sartutako kirolari bakar bat ere ezin izanen da izan elite-kiroleko dirulaguntzen udal-deialdian diruz lagundutako ekipoetan sartuta.

H.1.5 BERDINTASUNEO BI EKINTZEZ OSATUTAKO BORONDATEZKO PROIEKTUA

Apartatu honetan aurreikusitako arteko bi berdintasun-ekintzez osatutako proiektu bat borondatez egiten duten entitateek puntuen % 12,5 handitzen ahalko dute, H.1.4. azpi-atala aplikatzean eskuratutako guztien gainean. Deialdi honetan diruz lagundutako zenbait talde dituzten entitateen kasuan, proiektu bat aurkezten ahalko dute talde bakoitzeko, eta ezin izanen dute ezein berdintasun-ekintza erabili bi taldetan edo gehiagotan aldi berean, horrek ez badakar berekin talde bakoitzerako berariazko eduki berritzaile eta bereizia gehitzea.

Berdintasun-ekintzak:

- Denboraldian bi aldiz gutxienez, dirulaguntza jasoko duen taldeak edo entitateak nahitaez agertu beharko du eskura dituen komunikabide ahalik eta gehienetan (sare sozialak, prentsa idatzia eta elektronikoa, irratia, telebista), kirolean berdintasuna eta hezkidetzaren bultzatzea xede duten berariazko kanpainen berri emanez. Kanpaina horiek gauzatzeko berariazko ekitaldiak egiten ahal dira partida ofizialetan eta entrenamenduetan, edo Iruñeko ikastetxeetan.

- Entitateak berdintasun-proiektu bat garatu izana Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren 2023ko edo 2024ko deialdian emandako dirulaguntzaz.

- Marketin-estrategia orokor bat txertatzea entitatean, aldi berean berariaz zuzendua dagoena honako hauei: lehenik, erakunde antolatzailearen eskura dauden komunikazio-kanaletan, Zuzendaritza Batzordeetako pertsonen irudiak eta/edo elkarriketak erakustea, erakundearen edo -ekipoak egungo jardueretan azpi-ordezkatua dagoen sexua ordezkatzen dutenean; bigarrenik, entitateak sustatzen duen kirolean beren sexua edo bestelako baldintzatzaile pertsonalak direla-eta kirol, ekitaldi edo jarduera horretan tradizionalki azpi-ordezkatutako egon diren pertsonak bereganatzera. Horrek emakume eta nesken aldeko edo gizon eta mutilen aldeko jarduketak egitea ekarriko du, entitateak aldeztu aurretik egindako diagnostikoarekin bat. Estrategia hori behar bezala dokumentatu beharko da, inplementazioan lorturiko emaitzekin batera, eta publiko egin beharko da.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Epaimahaiburua:	Maider Beloki Unzu. Kulturako, Jailetako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko Zinegotzia. Ordezkoa: Iruñeko Udaleko beste zinegotzi bat.
Mahaikideak:	



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1.	Íñigo Gómez Eguluz, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Víctor Manuel Piñero Larrasoña, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko idazkari teknikoa.
2.	Daniel Martínez Aguado, Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduduna. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat.
3.	Nacho Arbeloa Freyre, Erdi-mailako teknikaria, Kirol zerbitzuari atxikia. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Ángela Sanz Rives, Zuzenbidean lizentziaduna, kirol arloan atxikia. Ordezkoa: Beste legelari edo Zuzenbidean lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENA JAKINARAZTEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Balorazio-batzordeak beharrezko azalpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

Baldin eta instrukzio-organoak edo, hala badagokio, dirulaguntza kudeatzen duen teknikariak baloratzen badute aurkeztutako eskabideren batek hobeto erantzuten ahal diela Udalaren beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horretara aurkezteko epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko die, entitateak hala eskatuz gero, eskabidea dagokion deialdira helarazi ahal izateko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ARGITARATZEA:



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udalaren Egoitza elektronikoa.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

L.1.1. Kirol-instalazioen erabilera.

Kontzeptu horretan honako gastu hauek sartzen ahalko dira:

- Bereak ez diren kirol-instalazioak erabiltzea.
- Norbere kirol-instalazioak erabiltzeak eragindako zeharkako gastuak, horiek kalkulatzeko metodologia ezin hobeki justifikatua eta arrazoitua erabiliz eskaeran, nahitaezko ezaugarri hauekin bat: a) oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauak men egitea; b) kostuak benetan izatea diruz lagundutako taldeak jarduera egin duen aldi horretakoak; c) kostuak diruz lagundutako taldeetako kide zehatzei bakarrik egotzitakoak izatea –eta aintzat hartzea, beharrezkoa izanez gero, balitekeela uneren batean instalazioa partekatzen aritu izana–; d) zeharkako gastuak soilik eragitea argi- eta ur-hornidurari, garbiketa-gastuei, atezaintzakoei, instalazioaren Erantzukizun Zibileko aseguruari eta berokuntzari (ezin izanen da bestelako gasturik egotzi, hala nola telefono eta komunikaziokoak, segurtasunekoak oro har, mantentze- zein konponketa-lanetakoak, kudeaketa-administrazioak eta ondasun higiezinak erostearen ondoriozko inbertsio-amortizazioak).

L.1.2. Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetarako, 2011. urtean jaiotakoetatik senior kategoriaraino (hori barne); eta igoera/jaitsiera-faseetarako, sektore-faseetarako eta kategoriako promozio-faseetarako, kirol ofizial batean eta senior kategorian bakarrik, honako gastu-kontzeptu hauek baino ez dira kontuan izanen: a) federazio-kanon edo -kuota zehatz eta eskusiboak sektore faseko txapelketan parte hartzeagatik, eta b) horietarako joan-etorriak, ostatu-hartzeak eta mantenua. Ez dira diruz lagunduko, inongo kasutan, aipatu mantenu-gastuei loturiko protokolo-bazkariak edo ospakizunetakoak, ezta senitartekoen ostatu edo joan-etorrien gastuak edo izaten ahal diren kirol-zehapenak. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, gehienez 0,32 euro ordainduko da kilometro bakoitzeko.

L.1.3. Deialdi honetako H.1.5 apartatuan aurreikusitako proiektuari dagozkion berdintasun-ekintzak. Entitateei berariazko gastua ekartzen badiete, behar bezala justifikatu eta arrazoitu beharko dira eskaeran.

L.1.4. Kontuan hartu beharreko beste batzuk:

Dirulaguntza jasotzen ahal duen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 12.000 eurotik gorakoa bada – ekipamendu-ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan –, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna jasotzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, dirulaguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan hornidura edo zerbitzu





NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, eragimen eta ekonomia printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xedea izanen: lehen aipatutakoak.

2. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuak egiteko epea: 2023ko irailetik 2024ko abuztura bitarte.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoaren edo portzentajearen azalpena: onuradun gertatzen diren entitateek emandako dirulaguntza osoa erabiliko dute, guztiz edo parte batean, dirulaguntzaren xede diren jardueretan egindako gastuak finantzatzeko, inolaz ere gaingitu gabe izandako defizitaren % 100. Udalaren dirulaguntzarekin bete ez den gastuaren parte onuradunak bere ekarpenarekin bete beharko du, edo kanpoko beste bitarteko batzuetatik jasotakoekin (beste dirulaguntza publikoak, parte-hartzaileen kuotak, etab.).

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Ñ.1. Deialdi honen xede diren dirulaguntzak helburu bera duten dirulaguntzekin bateraezinak izanen dira soilik, baldin eta horiek Iruñeko Udaleko edozein alorretatik jaso badira, honako bide hauetako bat erabilita: dirulaguntzetarako deialdiak, lankidetzak-hitzarmenak, kontratuak edo bestelako akordioak. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, beste administrazioek, erkidegoko, estatuko edo nazioarteko entitate publiko, pribatu edo partikularrek emaniko dirulaguntzak aldi berean eskuratzen badira, eta ez badira lehenago justifikatu, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzen ahalko da.



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Ñ.2. Elite mailako nazioko lehiaketetan parte hartzeagatik udal-deialdian diruz lagundutako taldeak edo kirolariak dituzten entitateek deialdi honetatik ezabatu beharko dute horiei aplikagarri zaien gastuaren parte, hori ezin izanen baita dirulaguntzaren xede izan deialdi honetan, salbu eta deialdi honetan H.1.3 apartatuan jaso eta aurreikusitako igoera-faseen kasuan.

Ñ.3. Oinarrizko Kirol Eskolak finantzatzeko udal-deialdian diruz lagundutako taldeak edo kirolariak dituzten entitateek (2023-2024ko denboraldiaren hasieran 6 eta 14 urte bitarte dituztenak, hots, 2017 eta 2009 bitartean jaiotakoak, biak barne) dirulaguntza jasotzen ahalko dute deialdi honen bidez. Baina, ezinen dituzte kirolari horiek sartu deialdi honetako H.1.4 apartatuko Nafarroako federazio-lizentzia duten kirolarien zenbaketan. Era berean, entitate batek beste entitate bat kontratatzen badu 2023-2024ko denboraldian Udalaren dirulaguntzak jaso dituzten Oinarrizko Kirol Eskolak osorik edo hein batean garatzeko, eta horren ondorioz nolabaiteko diru-sarrerak eskuratu baditu, diru-sarrera horiek islatu beharko ditu deialdi honetako P apartatuan aurreikusitako ebaluazio-memorian.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☒ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☐ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat:

a) Diruz lagundutako eta egindako jardueraren ebaluazio-memoria. Hona hemen memoria horren edukia: 1.) jarduera edo proiektuaren izena; 2.) helburuak eta xedea; 3.) egindako jarduketa tenporizatuak (berdintasunari lotuta egiten ahal direnak barne); 4.) kirol- zein gizarte-emaitzak, eta 5.) emaitza ekonomikoak, gastu eta diru-sarreraren balantze bat abiapuntu hartuta, non adieraziko baita, ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, hari loturiko kontzeptuak eta zenbatekoak eta jardueraren defizit zehatza, Udalaren dirulaguntza kontuan hartu gabe. Entitate batek beste entitate bat kontratatzen badu 2023-2024ko denboraldian Udalaren dirulaguntzak jaso dituzten Oinarritzko Kirol Eskolak osorik edo hein batean garatzeko, eta horren ondorioz nolabaiteko diru-sarrerak eskuratu baditu, diru-sarrera horiek memorian islatu beharko ditu, izaten ahal dituen beste batzuekin batera.

b) Hala badagozkio, IV. eranskina "Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetan parte hartzea" (2011an eta lehenago jaiotakoak) eta V. eranskina "Igoera/Jaitsiera-fase, sektore-fase edo kategoriako promozio-faseetan parte hartzea (senior)".

c) VI. eranskina "Nafarroako federazio-lizentzia duten kirolari kopurua" (dagokien Nafarroako Federazioak bete behar du, kasuan kasuko entitate edo klubaren oniritziak). Ez dira onartuko jatorrizko dokumentu elektronikoari gainjarrita boligrafoz zuzendutako edo osatutako eranskinak.

d) Gardentasun-betebeharrari buruzko adierazpena, VII. eranskinarekin edo webguneko izapidearen adierazpen ereduarekin bat, eta, hala badagokio, horrekin batera, dagokion dokumentazioa.

e) "Kirol-instalazioen erabilera", "Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetan parte hartzea", "Igoera/Jaitsiera-faseetan, sektore-faseetan zein kategoriako promozio-faseetan parte-hartzea (senior)" eta deialdi honetako H letran ezarritakoarekin bat egindako berdintasun-ekintzen proiektua –halakorik egiten bada– justifikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira: agiri frogagarriak, indarreko legeekin bat jaulkitako fakturak, ordainagiriak, nominak, tributuoak, Gizarte Segurantzaren kuotak eta gastuak frogatzeko gainerako egiaztapen baliokideak, trafikiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak eta egindako eta deialdi honetan diruz laguntzekoak diren gastuen balio frogagarria dutenak (L letra), modu korrelatiboan ordenaturik zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Agiri horien jatorrizkoak edo haien kopia konpultsatutakoak entitate onuradunak gorde beharko ditu, gutxienez, lau urtez. Aurreko gastuei dagokienez aurkeztu beharko dira, baita ere, hartzekodunei egindako ordainketen agiri frogagarriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatutako behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

Justifikatutako gastuek egindakoaren osotasunari eraginen diote, eta ez bakarrik kontzeptu horietan emandako dirulaguntzaren zenbatekora bitarte. Proiektua gauzatzeko aurreikusi den dataz bestekoa duten fakturak onartuko dira, baldin eta organo eskudunak aldeztatik proiektuaren aldaketaren bat baimendu eta aldaketa horrek proiektua gauzatzeko epeari eragiten badio.

f) Ekarpen dokumental labur-laburra (A4 kartelak, sare sozialen zein webguneen pantaila-irudiak, etab.), deialdi honetako E letran ezarritako hedapen-betebeharrak egiaztatzeko.

g) Faktura jaulkitzen duen entitatea BEZetik salbuetsirik badago, organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko salbuespena egiaztatu eta horretaz fede emateko.

h) Dagokion itzulketaren ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko geldikinik bada edo dirulaguntzen xede izan den jardueraren kostua baino diru gehiago jaso bada, eta horri dagozkion berandutze-interesak. Nolanahi ere, behin dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioa aztertuta, balorazio-txosten bat erantsi beharko zaio, Udaleko teknikari eskudunak sinatuta. Bertan berariaz adierazi beharko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zer akats eta inguruabarrek eragozten duten justifikazioa onestea.

i) Justifikazio fasean aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzukizunpeko adierazpena, VIII. eranskinarekin bat.

Nolanahi ere, behin dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioa aztertuta, balorazio-txosten bat erantsi beharko zaio, Udaleko teknikari eskudunak sinatuta. Bertan berariaz adierazi beharko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zer akats eta inguruabarrek eragozten duten justifikazioa onestea.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu, inongo kasutan, kirol jarduera egiteak sortutako defizita. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingen da dirulaguntzaren zenbatekoa.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Aurreko apartatuan adierazitako agiri frogagarriak dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira, deialdi honek diruz laguntzen baititu deialdi honetako G letran eskaerak aurkezteko aurreikusitako epea amaitzean eginak dauden jarduerak.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Ez betetzea dirulaguntzaren xedea den helburua.

b) Jasotako funtsen erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

c) Onuradunek bateragarriak diren dirulaguntzen bidez jasotako zenbatekoak jardueren kostuaren muga gainditzea, muga hori zenbatean gainditu eta hainbestean.

d) Oinarri honetan aipatzen diren egiaztapenei oztopoak jartzea edo horiek egiten ez uztea.



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntza itzularazteko ebazpena organo emaileak emanen du, behin espedientea instruitu eta gero, betiere aplikagarriak diren lege orokorrekin bat.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

S-1. Deialdi honen G.4 apartatuan, nahiz eta "telematikoki egiten ez den izapideaz" aritu, adierazi behar da deialdi hau oso-osorik telematikoki eginen dela.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☐ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. Espainiako txapelketa, kopa eta superkopetan parte hartzea (2011. urtean edo lehenago jaiotakoetatik aurrera)

V. ERANSKINA. Igoera/Jaitsiera-faseetan, sektore-faseetan zein kategoriako promozio-faseetan (senior) parte hartzea. VI. ERANSKINA. Nafarroako federazio lizentzia duten kirolari kopurua.

VII. ERANSKINA. Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasun-betebeharrari buruz.

VIII. ERANSKINA. Erantzukizunpeko adierazpena justifikazio-agiriei buruz.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



3FCC3B030BD651A7B5088CAF33B32DCE1B



IV. ERANSKINA

ESPAINIAKO TXAPELKETA/KOPA/SUPERKOPETAN PARTE HARTZEA (2011. urtean edo lehenago jaiotakoetatik aurrera)

Entitatea:	
Txapelketa:	
Data:	
Barne hartzen diren adin-tarteak:	

Gastuak (*)	
Federazio-kanon edo -kuota zehatzak eta esklusiboak txapelketan parte hartzeagatik (€)	
Joan-etorriak (€)	
Ostatu-hartzea eta mantenua (€)	
(*): ez dira barne hartuko elite kiroleko udal-deialdian diruz lagundutako Espainiako txapelketetako gastuak, ez eta senior adinetik gorako talde eta kirolarien edo 2011. urtean edo ondoren jaiotako kirolarien parte-hartzea ere.	
GUZTIRA:	

IV. eranskin bat beteko da Espainiako txapelketa/kopa/superkopa bakoitzeko.

Entitatearen gerentziak sinatua: Izen-abizenak:					
Iruñean,	20..	(e)ko		aren	 (e)(a)n

V. ERANSKINA





**IGOERA/JAITSIERA-FASEETAN, SEKTORE-FASEETAN ZEIN KATEGORIAKO
PROMOZIO-FASEETAN (SENIOR) PARTE HARTZEA**

Entitatea:	
Fasea:	
Data:	

Gastuak (*)	
Federazio-kanon edo -kuota zehatzak eta eskusiboak fasean parte hartzeagatik (€)	
Joan-etorriak (€)	
Ostatu-hartzea eta mantenua (€)	
(*): ez dira barne hartuko senior kategoriakoak ez diren taldeen eta kirolarien gastuak.	
GUZTIRA:	

V. eranskin bat beteko da igoera- edo jaitsiera-fase, sektore-fase edo kategoriako promozio-fase bakoitzeko. Beti senior kategorian.

Entitatearen gerentziak sinatua: Izen-abizenak:					
Iruñean,	20..	(e)ko		aren	 (e)(a)n

VI. ERANSKINA
NAFARROAKO FEDERAZIO-LIZENTZIA DUTEN KIROLARI KOPURUA





Nafarroako federazio honetako idazkariak:	[Federazioaren izenarekin bete]
Egiaztatzen du ezen entitate honek:	[entitatearen izena: kluba]
Kirol modalitate honetan:	[kirola edo kirolak adierazi]
eta 2023-2024ko denboraldian lizentzia- kopurua hau izan duela:	[entitateak denboraldian guztira izandako lizentzia-kopurua jarri]

Aurreko federazioaren idazkaritzak eta entitatearen/klubaren gerentziak egiaztatzen dute -bakoitzak dituen datuen arabera- kirol-lizentzien honako banaketa hau:

Kategoria	MUTILAK	NESKAK
0 kategoria: 6 urtetik beherako kirolariak (2018an eta ondoren jaioak)		
1. kategoria: 6-12 urte bitarteko kirolariak (2012 eta 2017 bitartean jaioak, biak barne)		
2. kategoria: 13-14 urte bitarteko kirolariak (2010 eta 2011 bitartean jaioak, biak barne)		
3. kategoria: 15-16 urte bitarteko kirolariak (2008 eta 2009 bitartean jaioak, biak barne)		
4. kategoria: 17-18 urte bitarteko kirolariak (2006 eta 2007 bitartean jaioak, biak barne)		
5-1 kategoria: 19 urtetik (2005ean jaioak) senior kategoriaren azken urtera bitarteko kirolariak -biak barne-, kirol bakoitzaren araudi propioarekin bat eta bakarrik honako kirol hauetan: besteak beste, saskibaloia, eskubaloia, futbola, areto-futbola, beisbola eta softbola, hockeya, errugbia, boleibola, taldeko kirol egokituak, waterpolo eta taldekako igeriketa sinkronizatua.		
a) Estatuko kirol-liga ofizial erregularretan parte hartzen duten kirolariak, 2. mailatik aurrera		
b) Erkidegoen arteko kirol-liga ofizial erregularretan (ez estatukoetan) parte hartzen duten kirolariak		
c) Nafarroako edo tokiko kirol-liga ofizial erregularretan parte hartzen duten kirolariak		
5-2 kategoria: 19 urtetik (2005ean jaioak) senior kategoriaren azken urtera bitarteko kirolariak -biak barne-, kirol bakoitzaren araudi propioarekin bat eta bakarrik honako kirol hauetan: besteak beste, atletismoa, tenisa, mahai-tenisa, pilota, padela, neguko kirolak, mendi kirolak, squash, judo, karatea, triatloia, xakea, badminton, ziklismoa, banakako kirol egokituak, esgrima, gimnastika, halterofilia, herri kirolak, kick boxinga, igeriketa, hegats-igeriketa,		





banakako igeriketa sinkronizatua, patinajea, golf, piraguismoa, taekwondo, arku-tiroa, tiro olimpikoa, ehiza eta arrauna.

a) Estatuko bost txapelketa ofizialetan gutxienez parte hartu duten kirolariak, kirol egokituen kasuan izan ezik, horietan gutxiago izan baitaitezke.

b) Lurralde-esparru txikiagoko (erkidegoen artekoa, Nafarroakoa, tokikoa) lehiaketa ofizialetan parte hartu duten kirolariak –a) letran adierazitakoez bestelakoak–, edo estatuko bost txapelketa ofizialetan baino gutxiagotan parte hartu dutenak.

6. kategoria: senior mailatik gorako adina duten kirolariak, kirol bakoitzaren araudiarekin bat, eta betiere 30 urte baino gutxiago ez dituztenak.

Ohar argigarriak:

- 1.) 3.etik 6.era bitarteko kategorietan kuantifikatu diren kirolarietako bakar batek ere ez du parte hartu beste udal-deialdi batean diruz lagundutako elite mailako taldeetan.
- 2.) Talde mistoek nesken eta mutilen kopurua banakatu beharko dute dagozkien laukietan.
- 3.) Hemen sartuko dira, bakar-bakarrik, 2023-2024ko denboraldian federaturik dauden kirolariak, eta inolaz ere ez dira sartuko entitatearen beste estamentu tekniko batzuetako kideak.
- 4.) VI. eranskin bat beteko da kirol-espezialitate bakoitzeko.
- 5.) Ez dira onartuko jatorrizko dokumentu elektronikoari gainjarrita boligrafoz zuzendutako edo osatutako eranskinak.

Federazioko idazkaritzaren sinadura:

Izen-abizenak:

Iruñean, 20.. (e)ko aren (e)(a)n

Entitateko / Klubeko gerentziak sinatua:

Izen-abizenak:

Iruñean, 20.. (e)ko aren (e)(a)n

VII. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ





Izen-abizenak:; NANA:..... eta bere
kabuz edo honako hau ordezkatz (dagokionaren
arabera):....., IFZ:

Jakinaren gainean nago deialdia egin dela norgehiagokako araubidean
dirulaguntzak emateko 6 urtetik aurrerako kirol amateur ofizialerako, 2023-
2024ko denboraldian, eta

Honako hau adierazten dut gardentasun-betebeharrez bezainbatean:

- ☐ **Gardentasun-betebeharra bete behar ez duen** pertsona edo entitatea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.
- ☐ **Gardentasun-betebeharra bete behar duen** entitatea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, eta, hortaz, aipatu 12.4 artikuluan adierazitako informazioa jakinarazten dut ondoko koadroan eta entitatearen urteko azken kontuak txertatzen ditut.

OHAR GARRANTZITSUA: aipatutako Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 3.c eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat, gardentasun-betebeharrak bete behar dituzte urtebetez 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuek, edo jasotako laguntzek edo dirulaguntzek entitate horien urteko diru-sarrera guztien % 20 egiten badute gutxienez, baldin eta gutxienez ere 5.000 euroko kopurura iristen badira.

ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ				
ENTITEA			IFK	
ORGANOA	KARGUA	ORDAINSARIAREN ZENBATEKOA	KONTZEPTUA	ZERTARAKO





Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webguneko Pribatutasun-politikan kontsultatzen ahal dituzu.

VIII. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, JUSTIFIKAZIO AGIRIEN GAINEAN

Izen-abizenak:

IFZa:



82182A7201E54E7372EA3A130112AFADDC



entitatearen legezko ordezkari gisa

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:

1. Memorian eta gastuen eta diru-sarreraren justifikazio-kontu honetan jasotako datuak egiazkoak dira.
2. Helburua bete da, proiektua gauzatu da edo dirulaguntza ematea eragin duen jarduera egin da.
3. Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak eta gainerako dirulaguntzek ez dute gainditzen diruz lagundutako lanaren edo jardueraren kostu osoa.

Iruñean, 2024ko aren (e)(a)n.

(Sinadura)

